

Indarkeria Matxista: egoeraren azterketa eta gazteon eskaerak

Maialen Olabe, EGK-ko presidenteak, eta Norma Ageitos, Berdintasun teknikaria izan dira agerraldian

Bilbon, 2017ko azaroaren 30ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) urtean zehar Indarkeria Matxistari buruz egindako lanaren ondorioak aurkeztu ditu gaur. Maialen Olabe, EGK-ko presidenteak, eta Norma Ageitos, EGK-ko Berdintasun teknikariak, egindako agerraldian Berdintasun lan-arlotik gidatutako bi proiektu eta hauen emaitzak aurkeztu dituzte: alde batetik, Indarkeria Matxistaren salaketarako protokolo publikoa; eta, bestetik, 'Indarkeria Matxistari... #GukEzetz!' kanpaina.

Olabek azpimarratu du **“protokoloa 2016ko ekainean indarrean sartu zenetik bost egunetik behin”** aktibatu behar izan dutela. “Bost egunetik behin emakume gazte batek Indarkeria Matxista salatzen du”, nabarmendu du. Horretaz gain, EGK-ko presidenteak adierazi du azken urtean “1000 emakume gazte baino gehiagok” salaketa burutu dutela, “egunean hiru emakumek”. Egoera honen aurrean, Olabek hainbat eskari mahai-gaineratu ditu. **“Administratibotik arlo juridikoan eta hezkuntzan aurrera pausoak ematen jarraitzea ezinbestekoa da”**, aldarrikatu du EGK-ko presidenteak, esaterako egun dagoen “genero-indarkeria kontzeptu murriztetik haratago joatea”, indarkeria jasaten duten emakumeen “tratu egokia ziurtatzea”, jada “hezkuntzan dauden programak indartzea” eta, batez ere, guztietarako “beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak, sortu, helarazi edo bultzatzea”.

Era berean, **gazteria eta gizarteari** Indarkeria Matxistaren aurrean **“O tolerantzia izateko”** eskatu dizkie Olabek. “Aurre egin behar zaio, eta ematen denean erasotuari laguntza eskaini eta publikoki argi eta ozen salatu”, gogorarazi du. Horrekin batera, EGK-ko presidenteak udaran aurkeztutako #GukEzetz kanpaina oroitarazi du eta edonor “batzera eta publikoki konpromisoa adieraztera” animatu du.

Datu gehiago eta zehatzagoen beharra

Bilbon egindako agerraldian, Norma Ageitosek datuek azaleratzen duten egoera azpimarratu du. “Emakume gazteek 30 urtetik gorako emakumeek baino gehiago salatzen dute”. Hala ere, Berdintasun teknikariak nabarmendu du honek ez duela irudi osoa argi uzten, izan ere posible da “emakume gazteok Indarkeria Matxista kasu gehiago bizitzea edo gehiago salatzea kontzientziazio altuagoagatik”.

Ageitosek adierazi duenez EGK-k aurrera eramandako #GukEzetz kanpainak erakutsi du “gazte, udal, eragile zein taldeek konpromisoa eta nahia” badutela eta saretzea eta “Berdintasunaren aldeko mugimendu eta baliabideak indartzea klabea dela”. “Testuinguruetan Berdintasun-arloan dauden aurrerapausoak txertatu ahal izateko modu bakarra da”.